



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/02/08

Indarkeria matxistaren biktima diren lau emakumetik hiruk adinbakoak ditue euren kargura

Aldundiak, genero indarkeriaren babesera bideratutako baliabideen barruko eta kanpoko ebaluazioak aurkeztu ditu gaur Batzarretako taldeen aurrean. Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasun diputatu andreak adierazo dauenez, Aldundiaren esku dagozan egoitzek, indarkeria matxistaren biktima izan diran 121 emakumeri eta 111 adinbakori eskini eutsien arretea igaz.

Egoitzetako plaza horreek beste programa batzuei gehitzen jakez, 1.687 pertsonari, “igaz baino 200 gehiagori”, zerbitzua emon deuten Aholkularitza Psikologikokoari, besteak beste. Horreetatik 1.577 andrazkoak izan ziran, 60 gizonezkoak eta 50 adinbakoak. Laespadak azpimarratu dauenez, Aldundiaren arretea jasoten daben emakume guztien artetik “lautik hiruk seme-alabak eukiezan euren kargura”.

Laespada EH Bilduk eskatuta etorri da gaur arratsaldean Bizkaiko Batzar Nagusietako Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasun batzordera, genero indarkeriaren babesera bideratutako baliabideen “prozeduren eta emoitzen” inguruan egin behar dan ebaluazioaren gaineko informazioa emoteko, 2015eko abenduaren 15ean egindako Batzar Nagusietako osoko bilkurak aho batez onartu eban moduan.

Diputatu andreak adierazo dauenez, egoitzetan eta programatan emakumeakaz egin dan azterketak “emakumeari, bere errealidadea aldatzen lagunduko deuten ahaldunderako tresnak emoteko” apustuan jarraitu beharra azpimarratzen dau, “indarkeria horrek eurengan eta euren seme-alabengan sortzen dituan gaiztasun izugarriak” gaingituz.

Aitatutako ebaluazioan, eta Aldundiaren esku dagozan egoitzei jagokenez, Laespadak azpimarratu dau 94 emakumek jaso ebela laguntzea Larrialdietako Harrera Zerbitzuan. Horreetatik ia %50ak seme-alabak eukezan bere kargura. Beste 16 emakumek egotaldi ertaineko edo luzeko egoitzetan jaso eben arretea. Horreetan emondako batez besteko egotaldia 9 hilebetekoa izan zan. Eta, bukatzeko, Gizarteratzera eta Laneratzera bideratutako egoitzetan, 20 emakumeri emon jaken “babesa” igaz. Horreen artetik %79ak lortu eban lanpostua.

Genero indarkeriaren biktima diran emakumeei laguntzeko lanaren barruan, euren tratu txarren eragilea zana gazi ziran andrei be emon jaken laguntzea. Etxebizitzan Familiako Eskuhartzera bideratutako programan 106 emakumeri eta 22 adinbakori emon jaken arretea 2016an. Programako batez-besteko egotaldia 13,5 hilebetera arte luzatu zan.

Aldundiak, euren zerbitzuetara heldu ziran tratu txar emoielen 60 kasuak be sartu ditu ebaluazio txosten horretan. Horreetatik %31 hogeita hamar urtetik beherakoak ziran. Horreen artetik 34 kasu “modu egokian” amaitu ziran, “lautik batek” tratamenduari ezetz esan eutsan, eta “%16ak” bertan behera itzi eban tratamendua.

Agerraldian, kanpo ebaluazioaren arduradunak, María Silvestre Deustuko Unibersidadeko irakasle eta ikerlariak, be hartu dau parte. Bere lana Bizkailab hitzarmenaren barruan zuzendu



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

dau. Ebaluazinoaren helburuen artean, txosten koalitatiboak, Aldundiak egindako ebaluazinoa egoitza eta programa horreetako erabiltzaileakaz egiaztatzea be sartzen zan. “Alkarrizketatutako 20 emakumeez” modu “positiboan” balorau ditue eskinitako baliabideak, baina “hobetu daitekezan arlo garrantzitsuak” dagozala adierazo dabe.

Batzarretako talde guztiak bat etorri dira genero indarkeria gizarte arloko “lakrea” dala esatean, eta oposizinoak esan dau penagarria dala Batzarretako taldeei datuak aurreratu ez izana, euren eretziz “funtsezkoa” eta Bizkaian emoten dan “giza eskubideen urraketa nagusia” dan gaiaren inguruan. Laespadak adierazo dauenez, datu horreek Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren webgunean dagoz jasota.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

NOTA DE PRENSA
08/02/2017

Tres de cada cuatro mujeres fruto de violencia machista en Bizkaia tiene menores a su cargo

La Diputación ha presentado hoy a los grupos junteros la evaluación interna y externa de los recursos y programas destinados a las víctimas de violencia de género. La diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha señalado que los centros residenciales forales atendieron a 121 mujeres y 111 menores víctimas de violencia machista durante el pasado año.

Estas plazas residenciales se suman a otros programas, como el de Asistencia Psicológica, que ha dado cobertura a 1.687 personas, “200 más que el año anterior”, de las que 1.577 fueron mujeres, 60 hombres y 50 menores. Laespada ha destacado que del total de mujeres atendidas por la Diputación “tres de cada cuatro tenía hijos o hijas a su cargo”.

Laespada ha comparecido a petición de EH Bildu esta tarde en la comisión de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de las Juntas Generales a fin de informar de la evaluación de los “procedimientos y resultados” de los recursos destinados a la protección de las víctimas de violencia de género, tal y como acordó que debía hacerlo, por unanimidad, el pleno de Juntas Generales celebrado el 15 de diciembre de 2015.

La diputada ha indicado que el análisis realizado con las mujeres en los centros y programas remarca la necesidad de seguir apostando por “dotar a la mujer de herramientas de empoderamiento que le permitan transformar su realidad vital”, superando las “tremendas dificultades que esta violencia acarrea sobre ellas y sus hijas e hijos”.

En la evaluación referida, y en lo que se refiere a los centros residenciales forales, Laespada ha significado que 94 mujeres fueron atendidas en el Servicio de Acogimiento de Urgencia. Casi la mitad tenía hijos o hijas a su cargo. Otras 16 mujeres fueron atendidas en los centros de media o larga estancia. La estancia media en ellos se situó en los 9 meses. Y, por último, en las residencias destinadas a la Inserción Socio-Laboral, se dio “cobijo” el pasado año a 20 mujeres, de las que el 79% logró un puesto de trabajo.

La labor de apoyo a las mujeres fruto de violencia de género abarcó también a mujeres que incluso convivían con sus maltratadores. En el programa de Intervención Familiar en el Ámbito Doméstico se atendieron en 2016 a 106 mujeres y 22 menores. La estancia media en el programa se alargó hasta los 13,5 meses.

La Diputación ha incluido en este informe de evaluación los 60 casos de maltratadores que llegaron a sus servicios, un 31% menores de treinta años. De ellos, 34 casos concluyeron “satisfactoriamente”; “uno de cada cuatro” rechazó el tratamiento; y el “16%” lo abandonó.

En la comparecencia ha intervenido también la responsable de la evaluación externa, María Silvestre, profesora e investigadora de la Universidad de Deusto, quien ha dirigido el trabajo en el marco del convenio Bizkailab. Dentro de sus objetivos, su informe cualitativo pretendía contrastar la evaluación realizada por la Diputación con las usuarias de estos centros y



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

programas. Las "20 mujeres entrevistadas" han valorado de forma "positiva" los recursos ofrecidos, si bien han declarado que existen "significativos ámbitos de mejora".

Todos los grupos junteros han coincidido en señalar que la violencia de género supone una "lacra" social y la oposición ha lamentado que la Diputación no haya adelantado los datos a los grupos junteros en virtud de un asunto que les parece "fundamental", y que representa la "mayor violación de los derechos humanos" en Bizkaia. Laespada ha indicado que los "datos" están recogidos en la web del Observatorio de Violencia de Género de Bizkaia.